**Espediente zk./**Nº Expediente: 2023SZUZ0038 **Erreg. data**/Fecha Reg: 2023/06/16
**Erreg. zk** ./ Nº Registro: 2023-00000013932
**Gaia/**Asunto: Euskal Fondoa 2023 ekarpena
**Eskatzailea**/Solicitante: EUSKAL FONDOA **NAN(IFK)**/DNI(NIF): G48772487
**Kokalekua/**Emplazamiento: ERRENTERIA

## DEKRETUA

**Legeak eman dizkidan eskumenez baliatuta, ondoko dekretua eman dut:**

### AURREKARIAK

Euskal Fondoak (Lankidetzarako Euskal Toki Erakundeen Elkartea) garapenerako lankidetza proiektuak aurrera eramaten ditu garapen bidean dauden munduko herrialde desberdinetan eta Errenteriako Udala 1996tik kide da.

Garapenerako lankidetzarako elkarte horrek proiektu desberdinak aurkezten dizkigu urteroko ekarpena egiteko. Ondoren, elkarteak egiten du proiektuaren jarraipena eta kudeaketa osoa, Udalaren erakunde laguntzailea den heinean. Hitzarmen bat sinatu zen elkartearekin 2020ko abenduaren 1ean. Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa da.

Dirulaguntza hau Udalaren 2020-2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan bilduta dago.

Euskal Fondoak 2023 urterako 6 proiektu aurkeztu dizkigu garapen bidean dauden 4 herrialde desberdinetan kokatzen dira horiek (Nikaragua, El Salvador, Kuba eta Mendebaldeko Sahara ) eta guk horietatik 2 hautatu ditugu ekarpena egiteko ondorengo irizpideak kontuan hartuta: gaiari dagokionean, gai sozialak tarteko izatea eta proiektua aurrera ateratzeko ekarpena guk ahal den neurrian osatzea. Hain zuzen ere:

## DECRETO

**En uso de las atribuciones que me confiere la Ley vengo a dictar el siguiente decreto:**

### ANTECEDENTES

Euskal Fondoa (Asociación Vasca de entidades locales para la cooperación) lleva a cabo proyectos de cooperación para el desarrollo en distintos países en vías de desarrollo y el Ayuntamiento de Errenteria es miembro de esta desde 1996.

La mencionada asociación para la cooperación para el desarrollo nos presenta anualmente proyectos para realizar la aportación. Es esta la que después realiza el seguimiento y gestión total de la misma, como entidad colaboradora con el Ayuntamiento, con la cual se ha suscrito un convenio el 1 de diciembre de 2020. Su duración es de cuatro años.

Esta línea de subvención está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento 2020-2023.

Euskal Fondoa para el año 2023 nos ha presentado 6 proyectos para llevar a cabo en 4 diferentes países (Nicaragua, El Salvador, Cuba eta Sahara occidental) de los cuales haremos aportación a 2 de ellos tras tomar en cuenta los siguientes criterios: en relación con la temática, que contengan temas sociales y por otro lado, hemos tenido en cuenta que a nivel de presupuesto, pudiéramos aportar una cuantía apropiada para que el proyecto hiciera adelante. Concretamente:

ESKU669a0c35-0b01-4eb0-b7a1-7556c2da1506

- P357k-23: Somoto hiriko 9. sektorean hiri-azpiegitura hobetzea: galtzada-harriak, arrapalak, arekak eta nasak kaleetan, 14. sektoreko haur-parkea birmoldatzea eta ibilgua babesteko sarea jartzea. Somoto Nicaragua.

- P357k-23 Mejoramiento de la infraestructura urbana en el sector 9 de la ciudad de Somoto, con adoquinado, rampas, cunetas y andenes en calles, así como la remodelación de parque infantil del sector 14 e instalación de malla de protección de cauce. Somoto Nicaragua

Proiektu honi 16.206,86€-ko ekarpena.

16.206,86€ de aportación a este proyecto.

- P345k-23: Gazteen ekintzailetzarako prestakuntza. Suchitoto. Cuscatlán departamentua. II. fasea (2/2). El Salvador

- P345k-23 Formación para el emprendimiento de la juventud de Suchitoto, departamento Cuscatlán, El Salvador. Fase II (2/2)

Proiektu honi 15.793,14€-ko ekarpena.

15.793,14€ de aportación a este proyecto.

Espedientean jaso dira beharrezkoak diren txosten guztiak, dirulaguntza ematearen aldekoak:

Constan en el expediente todos los informes necesarios, favorables al otorgamiento de la subvención:

- Kultur aniztasuna, garapenerako lankidetza eta giza eskubideetako azpisaileko Teknikariak, 2023ko ekainaren 16an txostena eman du.

- La Técnica de la subárea de Diversidad cultural, cooperación al desarrollo y derechos humanos ha emitido informe con fecha 16 de junio de 2023.

- Udal idazkari orokorrak 2023ko ekainaren 23an oniritzia eman dio dekretu proposamenari.

- La secretaria general municipal ha dado el visto bueno a la propuesta de decreto el 23 de junio de 2023.

- Udal Kontu-hartzaileak 2023ko uztailaren 10a datan espedientea fiskalizatu du,

- La interventora municipal con fecha 10 de julio de 2023 ha fiscalizado el expediente.

## ZUZENBIDE OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntza Orokorrei buruzkoa.

Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Dirulaguntza Orokorrei buruzko Legearen Erregelamendua.

Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, Reglamento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-).

Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 150, de 10 de agosto de 2015).

ESKU669a0c35-0b01-4eb0-b7a1-7556c2da1506

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, y con la conformidad dada a la propuesta de decreto que consta en el expediente.

Honen bidez,

Por la presente,

**EBATZI DUT**

**RESUELVO**

1.- EUSKAL FONDOA erakunde laguntzaileari 32.000 euroko dirulaguntza ematea, 2023 urtean zehar 2 proiektu gauzatuko dituzten erakundeen artean banatu ditzan. Banaketaren zehaztapena dekretu honen azalpenezko zatian jaso da.

1.- Conceder a EUSKAL FONDOA, entidad colaboradora, una subvención de 32.000 euros para ser repartidos entre las organizaciones que ejecutarán 2 proyectos durante el año 2023 en la forma concretada en la parte expositiva de este decreto.

2.- Denera 32.000 euroko gastua baimentzea eta xedatzea, 2023ko aurrekontutik. Hain zuzen ere, partida: 1.1430.419.01.230.20 (AD-2541-2023) horretatik.

2.- Autorizar y disponer un total de 32.000 euros, con cargo a la partida 1.1430.419.01.230.20 (AD-2541-2023) del presupuesto del 2023.

3.- Diru-laguntzaren ordainketa horrela egingo da:

3.- El abono de la subvención se realizará de la siguiente forma:

- Dirulaguntzaren %80a: 25.600€ dekretu hau ebaztean.

- 80% de la subvención: 25.600€ tras aprobarse el presente decreto.

- Dirulaguntzaren %20a: 6.400€, proiektuak gauzatu eta horien justifikazioa aurkeztu ondoren, fakturen eta txosten grafiko eta narratiboaren bidez, betiere Udalak justifikazioa nahikotzat jotzen badu (sail edo azpisaileko Teknikaria, Kontu-hartzailea eta dagokion Zinegotzi Delegatua)

- 20% de la subvención: 6.400€ una vez ejecutados los proyectos y tras la presentación de la justificación de los mismos, mediante facturas, informe gráfico y narrativo, siempre que dicha justificación sea considerada suficiente por el Ayuntamiento (la Técnica del área o subárea, la Intervención Municipal y el/la Concejal/a Delegado/a correspondiente).

4.- Udal Aurrekontuaren kargura dirulaguntza jasotzeko, erakunde edo pertsona fisiko onuradunek, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantza eguneratua izatea beharrezkoa izango da, legeak horrela eskatuko balu.

4.- Para la percepción de las subvenciones con cargo al Presupuesto Municipal, será requisito por parte de la entidad o persona física beneficiaria, el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social si legalmente así les correspondiera.

ESKU669a0c35-0b01-4eb0-b7a1-7556c2da1506

5.- Ebazpen hau jakinaraztea onuradun elkarteari eta ezagutaraztea Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa Sailari. Era berean, Dirulaguntzen Datu Basera (BDNS) bidaltzea eta Udalaren gardentasun atarian argitaratzea.

5.- Notificar esta resolución a la asociación beneficiaria y ponerla en conocimiento del Departamento de Hacienda y Desarrollo Económico. Asimismo, remitirla a la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS) y publicarla en el portal de transparencia del Ayuntamiento.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

KULTUR ANIZTASUNEKO, GARAPENERAKO LANKIDETZAKO ETA GIZA ESKUBIDEETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA

Errenteria, en la fecha de la firma

CONCEJALA DELEGADA DE DIVERSIDAD CULTURAL, COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO Y DERECHOS HUMANOS

Stua/Fdo.: Itsaso Cruz Etxeberria



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU669a0c35-0b01-4eb0-b7a1-7556c2da1506**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710*
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710*

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| | |
|---|---|
| **Titulua / Título:** | 2023SZUZ0038-DEKRETUA/DECRETO () |

Sinatzailea 1 / Firmante 1: ITSASO CRUZ ECHEVERRIA - 44146306Z
Data / Fecha: 2023/07/11 13:02:08